


# Aretxagazeta

## AGUR, BEROAKO LANTOKI ZAHARRARI

Abenduaren 2an hasi zituzten  
lantokia botatzeko lanak



ETA GAINERA...

### Ze barri?

GAIA

Atxorrotx Elkartea  
bazkide berrien bila /8

GAIA

Gabonetako ekitaldiei,  
agur /9

LEINTZ GATZAGA

Ekintza ugari Gabon  
jaietan /10

ASTEKO GAIA: 345 ETXEBIZITZA BERRI EGINGO DITUZTE /4 • KIROLAK: FRONTENIS TXAPELKETA/6

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 11**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99  
**DOMEKA, 12**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 85 83

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**  
Almen ..... 943 71 49 07  
ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21  
Faxa ..... 943 77 18 54  
Basotxo ..... 943 77 09 81  
Euskaltegia ..... 943 79 21 68  
Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62  
Hezibide elkarte ..... 934 79 31 32  
Industrialdea ..... 943 79 62 80  
Instituta ..... 943 79 79 00  
Kirol etxea ..... 943 71 26 28  
Kultura etxea ..... 943 71 10 27  
Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49  
Kurtzebarri BHL ..... 943 79 57 40  
Liburutegia ..... 943 71 18 62  
Loramendi EE ..... 943 77 09 70  
Ludoteka ..... 943 79 05 81  
Mankomunitatea ..... 943 79 30 90  
Murruxiko ME ..... 943 79 93 74  
Musika Eskola ..... 943 79 36 50  
Osasun etxea ..... 943 71 19 59  
Otalora ..... 943 71 24 06  
Parrokia (bulegoa) ..... 943 79 18 42  
Pausoka Haur Eskola ..... 943 77 03 77  
Postetxea ..... 943 79 28 31  
Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00  
Saretxo ..... 943 71 26 56  
Taxi geltokia ..... 943 79 22 33  
Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62  
Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63  
Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak ..... 112  
Eskualde ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaizta ..... 943 79 71 99  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdialak ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Oñati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00/12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00/10:00  
Lanegunetan: 08:00

**BASERRI AUZOETAN:**

**ARIENTZAN**  
Domeketan: 12:30

**GALARTZA**  
Domeketan: 11:30 (Otoitzaldia bakarrik)

**OHARRAK**

**UMEENDAKO ANTZERKIA**  
Hilaren 18an (zapatua), *Natatxa* umeendako antzerki emanaldia egingo dute, kirol etxean, 15:00etan. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 2,50 euroren truke, ludotekan eta kirol etxean. Eta egunean bertan, leihatilan, 3,6 euroren truke.

**BASOTXOKO ERRETIRATUEK BENIDORMERA BIDAIA JOATEKO AUKERA**  
Basotxoko erretiratuek apirilaren 27tik maiatzaren 11ra bitartean Benidormera joateko aukera izango dute. Interesatuok eman izena lehenbailehen Basotxoko bulegoan, 11:30etik 12:30era bitartean. Bakoitzak 396 euro ordaindu beharko ditu txangoa egiteko.

**ZURE OHAR ETA DEIALDIK ARETXAGAZETA-N**  
Zure bizilagunei, lankideei edo aretxabaletarrei, orokorrean, ohar bat jakinarazi gura badiezu, hemen duzu zure tarte egokia. Deitu edo bidali zure oharra:  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa eta erantzungailua: 943 77 18 54  
E-postaz, berriz, zuzendu honako helbide elektronikora: [aretxagazeta@goiena.com](mailto:aretxagazeta@goiena.com)

**LORAMENDIRENAGENDA**

**LORAMENDI LITERATURA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**  
Loramendi euskara elkarteak antolatutako eskola arteko XIII. Loramendi Literatura Lehiaketako sari banaketa egingo dute hilaren 23an. Arratsaldeko 7etan izango da ekitaldia, udaletxe zaharrean. Sariketako irabazleez gain, gainerako parte hartzaile guztiek ere izango dute saria; hortaz, sari banaketa-ra joatea eskatu dute.

**ORAINDELA 8URTE ARETXABALETAN**

**Lapurretan egin zuten parrokia nagusian**

1994ko urtarrilaren 6an, lapurretan egin zuten Aretxabaleta-ko parrokia nagusian. Errege egunean, dirudienez meza nagusiaren ondoren, lapurrak eliza barruan gelditu ziren gordeta. Gero, jendea joandakoan, sakristiako atea zabaldu, eta 75.000 pezeta lapurtu zituzten.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Takatekua”*

Kolpea, zartara, zartatekoa.  
—Baloiai jo biarrian orkatillan emun jostan kriston takatekua.



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Ainhoa Elkorobarrutia**  
Abenduaren 23an, 3 urte. Zorionak, Beñaten, aitarien eta amaren partetik.



ARETXABALETA  
**Beñat Elkorobarrutia**  
4an, urtebete. Zorionak, Ainhoaren, aitaren eta amaren partetik.



ARETXABALETA  
**Luis Mª Elkorobarrutia**  
7an. Zorionak, Ainhoaren, aitaren eta Aintzanearen partetik.



ARETXABALETA  
**Naiara Altube**  
Abenduaren 24an, 12 urte. Berandu bada ere, zorionak, etxeko partetik.



ARETXABALETA  
**Oier Etxebarria**  
12an, 30 urte. Zorionak, zure lagun taldekoaren partetik.



ESKORIATZA  
**Aitziber Isturiz**  
Abenduaren 30ean, 7 urte. Zorionak, amaren, aitaren eta Joneren partetik.



ARETXABALETA  
**Unax Barrainkua**  
10ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, familiako guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ana Agirre**  
9an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.

**Zorionak!**  
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARETXAGAZETAren bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**



Aretxabaleta Udal Liburutegia	
Oraindik	Erabiliak
1	1
2	2
3	3
4	4
5	5
6	6
7	7
8	8
9	9
10	10
11	11
12	12
13	13
14	14
15	15
16	16
17	17
18	18
19	19
20	20
21	21
22	22
23	23
24	24
25	25
26	26
27	27
28	28
29	29
30	30
31	31
32	32
33	33
34	34
35	35
36	36
37	37
38	38
39	39
40	40
41	41
42	42
43	43
44	44
45	45
46	46
47	47
48	48
49	49
50	50
51	51
52	52
53	53
54	54
55	55
56	56
57	57
58	58
59	59
60	60
61	61
62	62
63	63
64	64
65	65
66	66
67	67
68	68
69	69
70	70
71	71
72	72
73	73
74	74
75	75
76	76
77	77
78	78
79	79
80	80
81	81
82	82
83	83
84	84
85	85
86	86
87	87
88	88
89	89
90	90
91	91
92	92
93	93
94	94
95	95
96	96
97	97
98	98
99	99
100	100

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4      20550 ARETXABALETA  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941      info@eguzkigraf.com

**EGUZZKIGRAF**  
inprimategia  
*Urte Berri On!*

*Lubia*  
oinetakoak

**beherapenak!**

Mitarte 14 • 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53 ARRASATE


## ATREBENTZIAEZPADA/ Lehenagoko negue eta oingue diferentiek die; zuk zein gurago dozu?



**GOIZANE ELEJALDE**  
langillie




**MILAGROS ISASMENDI**  
langillie




**FELIX KORTABARRIA**  
jubilaue



**CONCHI CASTRO**  
langillie



**PAGO MARTÍNEZ**  
jubilaue



**JUAN ARENAZA**  
jubilaue

Neure ustez, oingo negue epelague da. Edur gehixago egitten euen lehen. Neuk garai hartako neguek gurago dittut. Urtaro bakotxien dagokixon eguraldixe egin biherko leuke.

Neguen, txikixe nitzela, mojetara jueten nitzenien sekulako izotz garrangak egoten zien; oin, barrez, ez da holakorik ikusten. Osasunerako lehenagoko neguek sanuague izeten zan.

Mutiko gaztie nitzenien, negu gogorak egitten zittuen hamen. Izen be, hotzak, luziek eta edurdunek izeten zien orduko neguek. Norberandako oingue hobia da.

Orduen eurixe be gehixago egitten euen. Edurre be oin aldien askoz gehixago egitten euen akordue dauket. Osasunerako sanuague orduke izengo zan, baiñe atsegiñague oingue da.

Alde haundixe dau orduko eta oingo neguen artien. Akordetan naz teillatuetan izotz garrangak egoten zielela zintzilik lehen. Udan uda egitteko neguen negue egin biher izeten dau.

Gazte denporan neguek gogorraguek izeten zien... Edurra be gehixago eta gehixagotan egitten euen hamen. Niretako danak onak izeten die. Egitten dauena hartu biher!

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK ZUHAITZ ADARREN MOZKETA** Herriko Plazan dauden zuhaitzak ederrak dira benetan. Uda aldean sekulako gerizpea ematen dute; neguan, aldiz, horren preziatuak diren eguzki izpiei ez diete guregana heltzen uzten. Horregatik, aste honetako txaloak Makai lantokikoei zuzendurikoak dira. Bi urtean behin herriko plazako zuhaitzak moztu eta txukun uzten dituztelako. /A.L.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Etxebizitza berriak

Deba ibaiaren ezker aldean, kirol etxetik hasi eta Lausitaraino, 345 etxebizitza egingo dituzte.

ASTEAN BEHIN /05

#### Gabonei gainbegiratu

Gabonetatik bueltan, aretxabaletarrek oporraldi horiek zelan bizi izan dituzten gogoratuko dugu.

KIROLAK /06

#### Debagoieneko kirol masterrak

Bihar, hilak 11, Frontenis Txapelketako lehenengo partiduak jokatu dituzte Aretxabaletan.

### ASTEKODATUA

# 23

#### URTE BASTERIK EZ DU UDALTZAIN BERRIAK

Iban Da Silva Aretxabaleto udaltzain berriak 23 urte ditu. Eta gainerako hiru udaltzainek, hau da, Martin Garaik, Alberto Zillaurrenek eta Jose Núñezek, 40 urte-tik gora dituzte.

### BESTEKEKESANA

**“ Ez didate orain arte jokatzeko aukerarik eman; ea hemendik aurrera egoera hori aldatzen den.**


**Badakit luparekin begiratu didatela domekako partiduan; guztiak nik egingo dudanari begira izango dira, baina gurago dut hala izatea. Ez dut albo batera utz nazaten gura.**

**Fisikoki egoera onean nago, baina, hala ere, egoerarik onena partiduak jokatzean lortzen dut.**

**Taldea oso ondo dabil liga hasi zenetik hona, ez dute aldaketak egiteko beharrik izan orain arte, eta orain, guztiok lan egin behar dugu dinamika hori lesioak direla-eta ez dadin aldatu. Nik domekan partidu ona jokatu gura dut. Ea horrela hurrengo partiduetan titular joka dezakedan...**

**JOSE JAVIER BARKERO**  
‘El Mundo Deportivo’/03-01-03

### HERRITARRENBERBAK/ Felis Beltran de Heredia



*Guretako bada...*

**E**z dut inoren alde egin gura, ezta alderdi politikoen aurka ere; hala ere, argi utzi gura dut herriko ordezkariak, alkateak eta zinegotziak, sigla batzuen atzean egon arren, euren herriaren alde lan egin beharra dutela lau urtean zehar.

Aretxabaletar guztiok dakigu kultura zentro edo eraikin baten beharra daukagula; hitzaldiak, erakusketak, antzerkiak, zine saioak, diaporama emanaldiak... eta beste horrenbeste ekintza antolatze-ko. Badirudi etekinak lortzea dela udalean daudenen helburua azken aldirian (hauteskundeak laster ditugu). Horrela bada, orain hilabete batzuk kultura etxea, aisialdi zentroa edo dena delakoaren proiektua aurkeztu zuen gobernuan dagoen EH taldeak, horretarako hartutako teknikariak egindako proiektua. EAJ/EA alderdiak, udalbatza osatzen duenak, ostera, atzera bota zuen eta proiektu berria

aurkeztu du. Marcos subkomandantea eredu hartuta ondoko proposamena edo erronka bota nahi dut:

Mahai baten aurrean Anjel Bergaretxe, EHko alkatea, eseri dadila 2003. urteko aurrekontuetan sartu duten proiektua defendatzeko-bera

**“Entzun beharrekoak entzunda, geu izan gaitzen zein eratako proiektua gura dugun erabakiko dugunak”**

tekniko taldearekin, eta beste aldean, Karmelo Azkoitia EAJ/EA taldeko burua bere tekniko taldearekin euren proiektua aurkezteko. Bi taldeek aurkeztutako proiektuari ikusitako hutsuneak azalduko dituzte.

Hori guztia herritarren aurrean egingo dute, eurak baitira benetako interesa dutenak, baita arazo honetan galtzaileak direnak ere. Entzun beharrekoak entzunda, geu, herritarrok, izan gaitzen zein eratako proiektua gura dugun erabakiko dugunak.

Erronka bota dietenak jar dezatela orain eguna eta ordua. Tristea da gero, baina, orain ere, lokala izango da arazoa.

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaleto  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



M. J. Aretxaga

## Kaixo 2003; agur, Beroa

**H**asteko, urte berri on, guztioi. Joan zitzaigun 2002. urtea eta estreinatu berria dugu 2003a. Orain, aldapan gora ibiltzea tokatzen zaigu urtarrilari aurre egiteko. Gabonetan hartu ditugun kiloak erretzeko ondo etorriko zaigu aldapa apur bat. Bide-gorrikoa adibidez. Oraindik ez duzuela estreinatu? Ba... edarto gelditu da. Ez du aldats gehiegi, paisaia zoragarria eta lasai ibil zaitezke, autorik ez dago eta.

Herriko futbol jokalariek batek ez dakit bide-gorria estreinatuko zuen, baina denboraldia behintzat bai. **José Javier Barkerok** domekan jokatu zuen ligako lehenengo partidua. Ez dakit zorte larregi izan zuen, baina ahalegin du ahalegindu zen. Ea hemendik aurrera zelaiak gehiago ikusten dugun.

Eta azkenik, badirudi neguko eguraldi beroari agur esan diogula. Nik behintzat estreinatu dut txamarra lodia eta... uf! Benetako negua heldu dela dirudi. Eta beroari agur eta **Beroako eraikin zaharrari** ere agur esan behar. Urte berriarekin batera hasi ziren botatzen, eta laster garbi-garbi egongo da guztia. Ikusgarria da gaur egungo makinak eraikina nola botatzen duten ikustea. Herriko jubilatua behintzat pozik daude. Hantxe batzen dira makinatxo bat, lanak nola doazen ikusteko.

*M. J. Aretxaga*

**HIRIGINTZA/** Eraikiko dituzten etxebizitza guztietatik 220 babes ofizialekoak izango dira

## Deba ibaiaren ezker aldean 345 etxebizitza egingo dituzte

AMAGOIA LASAGABASTER

Udalak 2002an egindako azken osoko bilkuran Deba ibaiaren ezker aldean -kirol etxearen atzeko aldetik hasi eta Lausita auzorainoko tartean- 345 etxebizitza egiteko plan partzialaren aurrerapena onartu zuen. **Etxebizitza horietatik %65 babes ofizialekoak izango dira.**

Aretxabaletan 345 etxebizitza egiteko planak aurrerapauso garrantzitsua eman zuen 2002. urtean egindako azken osoko bilkuran. Hain zuzen ere, abenduaren 23an, 2-B sektoreko plan partzialaren aurrerapena onartu zuten zinegotziek. Hala, Deba Ibaiaren ezker aldean -kirol etxearen atzeko aldetik hasi eta Lausita auzorainoko tartean- 345 etxebizitzekin osatutako auzunea egiteko proiektua jarri zuen abian Udalak.

### 220, BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Abenduko osoko bilkuran onartutako plan partzialaren aurrerapenean lursail horrek zein itxura izango duen zehaztu zuten, gutxi gorabehera. Eraikuntza aldetik, esaterako, bi motatako etxebizitzak egingo dituzte: batetik, txalet itxurakoak; eta, bestetik, hainbat solairutako etxebizitzak. Horrez gain, zehaztu dute 345 etxebizitzetatik % 65 -hau da, 220 etxebizitza- babes



Besteak beste, Belorrieta atzealdeko zelaietan egingo dituzte etxebizitzak.

ofizialekoak izango direla. Bestalde, bideei dagokienez, oraingoz, auzunea hegoaldeetik iparralderaino zeharkatuko duen bide bat eta etxebizitza horiek Belorrieta

auzoarekin elkartuko dituen zubia egitea pentsatu dute.

Plan partzialaren aurrerapena hilabetez izango da ikusgai, iradokizunak egin ahal izateko.

## LABUR

### Tubos De Precision enpresa itxi egin dute behin betiko

Otalora kalean dagoen Tubos De Precision lantokia itxi egin zuten, behin betiko, abenduaren 31n. Lantokiko zuzendaritza batzordeak ekoizpena eten eta lantokiko lursail guztiak saldu ditu. Horren ondorioz, Tubos De Precision enpresako 23 langileak kalean gelditu dira. Horietatik, langile batzuk gertu azaldu ziren hodian ekoizpenarekin jarraitzeko, baina gehienak zuzendaritzarekin adostutako ordainketa akordioarekin konformatu dira.

### Ana's denda, Erakusleiho Lehiaketako irabazle

Aurten, Ana's jantzi dendak irabazi du Gabonetako erakusleiho politenaren lehenengo saria. Ana's dendako arduradunek, ohiko jaiotzaz gainera, koloreetako argiekin apaindu dute alderik alde dendako erakusleiho. Lehiaketako bigarren saria, berriz, Nerian loradendari eman diote; eta hirugarrena, Maritxu mertzeriari. Azken horrek antzinako lanabes bat erakutsi du erakusleihoan.



### Beroa lantokia botatzeko lanak hasi dituzte

Beroako lantoki zaharra botatzeko eraispen lanak urtarrilaren 2an hasi zituzten. Urvasco enpresa eraikitzailea ari da lan hori egiten, eta, gutxi gorabehera, bi hilabete beharko ditu dena botatzeko. Eraispenean gaitzena cibrozementua dagoen tokian egin beharko dute. Izan ere, material hori birziklatzeko tratamendu berezia eman behar zaio./A.L.

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Jou Diaz

Harakina

Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lentzeria



Durana, 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

OSKAR GARAJEJA

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETA

**GABONEI GAINBEGIRATUA/** Justino Uribesalgo Isurietako abadearen erretratu zaharrekin osatutako erakusketak sekulako arrakasta izan zuen

# Gabonetako oporraldietan, inor ere ez aspertzeko, hamaika ekitaldi egin zituzten

AMAGOIA LASAGABASTER

Joan dira 2002. urteko Gabonak ere. Baina ez dira nolanhari pasatu. Betiko moduan, gure oroimenerako hamaika irribarre eta kontu utzi dituzte Gabonetako opor egun horiek. Hala, ARETXAGAZETAK horietako banaka batzuk argazkitan batu ditu.

Urtero moduan, zapore goxoa utzi dute Aretxabaletan Gabonek. Opor egun horietarako aparteko ekitaldiak antolatzen dituzte Musika Eskolak, Akordeoi Orkestrak, Udalak, Loramendi Euskara Elkartek, Ludotekak eta beste hainbatek. Horiei guztiari esker, aurten ere errealitate bihurtu dituzte umeen eta nagusien nahiak.

### EKITALDI ARRAKASTATSUAK

Ohikoa denez, jende gehien Gabon eta Urtezahar egunetan batu zen herrian. Egun horietan, Olentzerok eta Bizar Zurik ez zuten hutsik egin. Batek opariak ekarri zituen herrira eta besteak, berriz, Errege Magoendako gutunak jaso zituen. Gutun handiena Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformakoek idatzi zuten. Beste behin ere kandelen argitan plazan elkartu ziren euren eskaera egiteko. Eta azkenik, zelan ez, ezin ahaztu Justinoren erakusketa arrakastatsua. Hura bai argazkilari ona!



Beste behin ere Errege Magoek etxeko txikiaren eskari guztiak entzun zituzten.



Poxpolin Park-en ume guztiek izan zuten gura adina joko eta jolas.



Justino Uribesalgoren argazkiek arreta handia piztu zuten aretxabaletarren artean.

**Martin**  
erloju-denda

*Bere bezeroen  
zerbitzura*

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

*Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea*

Mitarte, 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

**Jauregi**  
Okindegia

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

**Iber**

★ Loteria ★  
✿ PAPERDENDA ✿  
✱ Liburuak ✱


Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

**BENGOA**  
URDAITEGIA

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

**BEIRALAN KRISTALDEGIA**



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behe • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

**PAGALDAI**

*Opari denda  
Lurrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14



**ANDRA  
MARI**

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

**IRIARTE**

*Umeen  
denda  
Helduen  
lentzeria*



Durana, 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

FUTBOLA

# Debagoieneko kirol txapelketen masterrak bihar, hilak 11, hasiko dira

Aretxabaletan fronteniseko partiduak jokatuko dituzte Debagoieneko zortzi bikotek


AMAGOIA LASAGABASTER

Oraingoan, 2002ko Debagoieneko kirol txapelketen masterrak ohi baino beranduago jokatuko dituzte. Joan den Gabonetan ezin jokatu, eta azkenean, 2003. urtean jokatzea pentsatu dute. Hain zuzen ere, bihar, zapatua, jokatuko dituzte aurreneko partiduak.

Debagoieneko txapelketen oraingo aldian, Aretxabaletan Frontenis Txapelketako partiduak jokatuko dituzte. Arrasaten, berriz, squashean ibiliko dira, eta, azkenik, Bergaran teniseko norgehiagokak izango dira. Aretxabaletan bihar, zapatua, jokatuko dituzte aurreneko partiduak. Masterreko partidu horietan 2002. urtean barrena jokatu diren Frontenis Txapelketetan puntu gehien irabazi dituzten zortzi bikote izango dira nor baino nor gehiago.

**KANPORAKETAK**

Bihar, zapatua, final-laurdenak jokatuko dituzte zortzi bikoteok kirol etxean. Gero, jardunaldi horretan sailkatutako lagunek finalerdietako partiduak jokatuko aukera izango dute; horiek etzi, hilak 12, jokatuko dituzte.



ASIER MUJICA

Debagoieneko zortzi bikote ibiliko dira zein baino zein gehiago kirol etxean.

Azkenik, kanporaketa guztiak egin ondoren, partiduetan nagusitu diren bi bikoteek finala jokatuko dute, hilaren 19an. Egun horretan, gainera, hirugarren eta laugarren postua erabakitzekeo partidua ere jokatuko dute.

Debagoieneko kirol txapelketak, urtero moduan, Debagoieneko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu ditu.

Debagoieneko kirol txapelketak, urtero moduan, Debagoieneko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu ditu.

Debagoieneko kirol txapelketak, urtero moduan, Debagoieneko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu ditu.

XAKE

## Fran Migel bigarren gelditu zen Donostian jokatutako Gipuzkoako Xake Txapelketan

Aretxabaletako Arlutz Xake Taldea ez da geldirik egon Gabonetako oporretan. Santamasetan Arrasateko Xake Txapelketan irabazi eta gero, Arlutz taldeko Fran Migel eta Aitor Alcaide Donostian izan ziren, abenduaren 23tik 30era bitartean jokatutako Gipuzkoako Xake Txapelketan, hain zuzen ere. Fran Migel ondo ibili zen, eta bigarren gelditu zen txapelketa hartan.

FUTBOLA

## JOMA taldeak irabazi zuen Gabonetako Peña Zubizarreta Zazpinako Futbol Txapelketa

Urtero moduan, Gabonetako oporraldian Peña Zubizarreta Zazpinako Futbol Txapelketa jokatu zuten Ibarra. Denera, Debagoieneko bost talde ibili ziren zein baino zein gehiago. Horietaik onena JOMA taldea izan zen; bigarren Sport izan zen eta hirugarren, Solano. Beñat Iturbe jokalaria, berriz, sari berezia jaso zuen. Beñatek txapelketako partidu baten lesio gogorra izan zuen.

**PARTIDUAK**

**FUTBOLA**

**UDA-Bergara**  
Preferentea.  
Igandea. 16:30. Ibarra.  
**UDA-Gazteak**  
Bigarren mailako erregionala.  
Zapatua. 15:30. Ibarra.  
**UDA/Almen-Amaika bat**  
Gazteak ohorezko liga.  
Zapatua. 15:30. Ibarra.  
**UDA/Almen-Baskonia**  
Bigarren mailako gazteak.  
Domeka. 11:00. Ibarra.

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**

**Elgoibar 0 UDA 0**  
Preferentea.  
**Aloña 6 UDA 1**  
Gazteen Euskal Liga.  
**Urki 2 UDA 4**  
Bigarren mailako erregionala.  
**UDA 2 Urola 1**  
Bigarren mailako gazteak.  
**UDA 0 Ilintxa 3**  
Lehenengo mailako kadeteak.  
**UDA (b) 3 Amaika bat 1**  
Bigarren mailako kadeteak.

**Bergara 0 UDA 3**  
Infantilak.  
**Almen/UDA 1 Urki 1**  
Emakumezkoen liga.

**PILOTA**

\*ez zuten partidurik jokatu.

**ZURE  
IZENA  
ETA  
HELBIDEA**



**IZEN-DEITURAK HELBIDEA**

**Goienka**

EGUBAKOITZA • 2002ko abenduaren 13a • III. urtea • 90. zenbakia • DOAN

Goienka2a  
"Los Cavalleros"

KIROLA

ALBERTO FRÍAS / EGUZKI-KO KIROLA

**ANTZUOLA • ARETXABALETA • ELGETA • ESKORIATZA • OÑATI**

Zerbitzu hobea emateko asmoz, herri horietan OTSAILETIK AURRERA ETIKETAREKIN banatzen hasiko gara GOIENKARIA.

Astero eta doan jasotzen jarraitu nahi baduzu, DERRIGORREZKOA da izen-deiturak eta helbidea ematea.

Datuak eman dituztenek BAKARRIK jaso ahal izango dute GOIENKARIA.

943 71 23 90/91 • [jaranguren@goiena.com](mailto:jaranguren@goiena.com)

**Goienkaria**

# 1. euskal selekzioaren cd-rom jokoa



**eskatu  
orain!**

**902 010 735**  
Telefonoa 24 orduz.

**Imajina dezakezun guztia!**



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!

Aukera ezazu taktikarik egokiena

Jokatu:  
Munduko Txapelketa,  
Lagun arteko partiduak,  
sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n  
Txilenak, erregateak, jaurtiketak,  
sarrera ikusgarriak, golen  
ospakizunak...  
Giro-soinu aparta,  
Ikurrinak harmailetan...  
Jokoaren estatistikak  
Jokaldi onenen errepikapenak...  
Lau futbol zelai aukeran.  
Partiduak egunez, gauzez,  
euriarekin...



**euskal  
selekzioaren bufanda**  
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,  
72 orduan  
bidaltze  
gasturik gabe



Jokoa orain erosiz gero,  
bufanda eta garraioa

**DOAN**

# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 10a / 108. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Bazkide berriak egin gura ditu Atxorrotx Hirugarren Mundurako Elkarteak

AINTZANE GARDOKI

**Orain dela ia 6 urte sortu zuten herriko hamarren bat lagunek Atxorrotx elkarteak. Geroztik, bazkide kopuruak gora egin du, baina aspaldian motel ari direla-eta, bazkide berriak egin gura ditu elkarteak.**

Azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, Gabon jaietan Atxorrotxek elkartearen gaineko informazioa eman die herritarrei: "Herritarrei esker egiten ari garen proiektuen berri eman gura diogu Eskoriatzari. Ahalik eta herritar gehienengana helteko asmoz, postontziratatu egin dugu informazioa: alde batetik, egiten ari garen proiektuak non eta zertan diren azaldu dugu; eta, beste alde batetik, zein diru sarre- eta gastu ditugun ere eman dugu aditzera", esan digu Atxorrotx elkarteko kide Josu Barandiaranek.

1997an jaio zen elkarteak: "40-45 bazkide izatera heldu gara, baina kopuru hori igo beharrean, jaisten ari da; hortaz, horri aurre egin behar diogu. Esko-

riatzarrak badaki solidarioa izaten, eta horri heldu gura diogu". Hondurasen eta Boli Kostan bost proiektu dituzte abian edo, dagoeneko, amaituta: "Hondurasen amaitu ditugu, baina aurten, beste proiektu bat abian jarriko dugu, seguruenik. Boli Kostan, gerra dela-eta, gauzak geldirik daude", gaineratu digu Josu Barandiaranek.

Beste herri batzuetara elkartasuna eraman gura duten guztiek dute bazkide izateko aukera: "Bazkide bakoitzak aukeratzeko du zenbat diru emango duen. Erraza eta garrantzitsua da laguntzea". 943 71 53 85 zenbakian edo hileko lehenengo eguaztenetan, 19:00etan, Itarte etxean izango duzue informazio zabalagoa.

*"Eskoriatzarrak badaki solidarioa izaten, eta horri heldu gura diogu"*

GARBIÑE GONZÁLEZ/HUHEZI-KO LANGILEA

*"Galizian bizi izandakoa esperientzia gogorra izan da"*

AINTZANE GARDOKI

**G**arbiñe beste 200 lagunekin batera Galiziako kostaldeko fuel-olioa garbitzen ibili zen abenduan. HUHEZIKO Praktiker departamentuko langilea da Garbiñe, eta, galipota jasotzeaz gainera, koordinazio lanak ere egin behar izan zituen Galizian.

**Eskoriatzar asko izan zineten Galizian?**

Herritar gehiagok parte hartuko zutelako espero nuen, baina bi edo hiru eskoriatzar bakarrik joan ginen Galiziara.

**Zer-nolako esperientzia izan da han bizi izandakoa?**

Ikaragarria. Oso esperientzia gogorra izan da. Bidaia bera ere uste genuen baino gogorragoa izan zen. Carnotara heldutakoan zegoen usaina eta han ikusten zena negargarria zen. Eguraldiak ere ez zigun batere lagundu eta espero genuen baino lan txikiagoa egin genuen. Antolaketa dagokionez ere hobetzekorik izan zen.

**Zelan hartu zintuztetan galiziarrek?**

Ondo, oso ondo. Bihotzez esker-



tu ziguten guk emandako elkartasuna. Aldiz, haserre daude gobernuaren utzikeriarekin.

*"Herritar gehiagok parte hartuko zutelako espero nuen, baina bi edo hiru eskoriatzar joan ginen"*

## LABUR

**Gabon zahar egunean udaletxean sartu ziren**

Gabon zahar eta Urteberri eguna bitartean ezezagun batzuk sartu ziren udaletxean. Hain zuzen, udaletxeko atea zabaldu eta atartearen dagoen kafe makinako dirua hartzen ahalegindu ziren, baina ez zuten lortu. Kalte txikiak besterik ez zuten eragin. Atartetik aurrera sartzeko ahaleginik ere ez ei zuten egin. Udaleko arduradunen ustez, "gamberrada baten ondorio" besterik ez da izan Gabon zahar egunean egindakoa.

**Liburutegia itxita egongo da berria zabaldu bitartean**

Lanak amaituta badaude ere, datorren hilaren hasieran da inaguratzekoa liburutegi berria. Dena dela, joan den abenduaren 20a ezker, liburutegi zaharra ere itxita dago. Orain artean kultura etxean egon den liburutegiko liburuak eta beharrezko materialak liburutegi berrian egokitze beharko dituzte arduradunak datozen asteak. Bestalde, Luis Ezeiza ondoan dagoen liburutegi berriak 400 m<sup>2</sup> izango ditu eta formatu askotako materialak eskainiko ditu.

**Eskiatzera joateko lehenengo irteera oraingo asteburuan**

Eskoriatzako Kirol Elkarte-ko Mendi Sailak antolatuta, asteburuan egingo dute aurtengo lehen eski irteera. Luz Ardidenera joango dira, autobusez. Bihar, zapatua, irteerako dira, 05:00etan. Inguruetako mendietan elurra ikusi ondoren, herritar asko animatu direla esan digute antolatzaileek. Oraingoan joaterik ez duenak izango du aukera aurrerago; izan ere, otsailean eta martxoan beste hiru irteera egingo dituzte elurretara.



**Mendibeko lanak laster amaituko dituzte**

Euri-jasek lur-jausia eragin zuten Mendibe baserri ondo-ko bihurgunean orain dela aste batzuk. Hala, egunero 6.000 automobil pasatzen diren errepidean errei bat moztuta dago geroztik. Foru Aldunditik esan digute datorren asterako lanak guztiz amaitzen ez badituzte ere bi erreiak zabalik egotea espero dutela. Lurra egonkortzeko lanak egiten ari dira; errekan hasi eta errepideraino harrizko horma egiten ari dira. Usteen kontra, bihurgunea ez dute zabalduko./A.G.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaizta (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**ZOKKETA ZENBAKIA**  
Ezker abertzaleak egindako zozketan 9.571 zenbakia izan da saritua. Zenbakia-  
ren jabeak hilabete izango du saria jasotzeko.

**'EL HOMBRE QUE CONFUNDIÓ A SU MUJER CON UN SOMBRERO'**  
Hilaren 24an, 22:30ean, HUHEZIKo Fakultateko areto nagusian izango da Ramon Bareak zuzendutako ikuskizuna. Ramon Bareak, Paco Sagarzakuk, Itziar Lazkanok, Jone Irazabalek, Ander Lipusek eta Inaxio Tolosak hartuko dute parte. Sari ugari irabazi ditu antzezlan horrek.

**AXTROKIRENAGENDA**

**ESKERRAK ETA URTE BERRI ON!**  
Joan den abenduaren 24ko ekitaldietan laguntza eskaini zuten herritarrei esker ona adierazi gura die euskara elkarrekin. Eta herritar guztiei, urte berri on!

# Erregeek eman zieten amaiera Gabonetako ekitaldi ugariei

**AINZANE GARDOKI**

Ekitaldiz gainezka egon dira Gabon jaiak Eskoriatzan. Erregeen kabalgatarekin bukatu ziren ekitaldiak. Egun batzuk lehenago, Olentzerok inoiz baino laguntzaile gehiago izan zituen. Ehunka ume eta nagusik lagundu zioten kalez kale ikazkin zaharrari. Gazte Asanbladak ere ekintza ugari antolatu zituen, eta arrakastatsuak izan ziren. Bestalde, Intxaurtxuetako kiroldegian jarritako Gabonetako parkean ume eta gaztetxo asko ibili zen, eta, ardura-dunen esanetan, beste urte batzuetan baino aukera zabalagoa izan dute umeei. Txalok eskainitako *Natatxa* ikuskizunak ere bere egin zituen eskoriatzar asko eta asko.




Erregeak San Pedro elizaraino hurreratu ziren eta ohiko opariak eskaini zizkieten Jesus umeari.

*Olentzero egunean inoiz baino laguntzaile gehiago izan zituen ikazkin zaharrak*

*Intxaurtxuetako kiroldegian jarritako Gabonetako parkean ume asko ibili zen*



Herritar asko batu ziren *Natatxa* ikusteko.




Ume txikienei eta nagusiagoek aukera ugari izan dituzte.



Dorleta paper dendak irabazi du aurtan ere Erakusleihu Onenaren saria.



Eskoriatzan ere umeak izan dira jai hauetan protagonista nagusi.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540



**bedardenda**

Tfnoa.: 943 71 43 27  
ESKORIATZA

**Villar**  
Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA

# Umeek eta nagusiek era askotako ekintzak izan dituzte aukeran Gabon jaietan

AINZANE GARDOKI

Gezurra galanta gatzagarrek mahaiaren inguruan ordu luzeak eman ez dituztela esango bagenu. Olentzero egunean, eguna hasiaz bat Kamineruenean sabelak ondo bete zituzten Olentzerok eta haren laguntzaileek. Jarraian etorri ziren mahaiaren inguruan ospatzeko beste asko. Umeek, ipuinak entzun eta zinemara joateaz gain, errozkila eta gaileta ederrak egiten ere ikasi zuten. Gizonezkoak, berri, ondo jan eta hobeto edateko asmoz, irteera egin zuten Errioxara. Eskerrak kirol apurren bat ere egin zutela beste herritar batzuek.

*Herriko umeek ere errozkila eta gaileta ederrak egiten ikasi zuten Gabonetako oporretan*

*Eskerrak kirol apurren bat ere egin zutela beste herritar batzuek*



Marraskilari onenen sariekin ekin zieten Ibaik eta Iratik Gabonetako oporrei.



Gatzagako eta Legutianoko jokalariz osatutako taldeak 5-3 galdu zuen Eskoriatzan.




Gatzagako jarraitzaileek giroa berotu zuten Eskoriatzako kiroldegian.



Umeek eta nagusiak ibili ziren baserri Olentzerori laguntzen.



Ipuin kontalariarekin munduari bira eman zioten Gatzagako umeek.



**FAGOR**

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.  
Gastañadui auzoa 42  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa  
Tel: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001



**AZKOAGA**  
ESTANKOA

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura



# HARMAILATIK...

## Kirola bizi izateko!

**Goitb**  
Goiena Telebista

*Ikusiko  
duzu!*

**Astelehenero,**  
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:  
**Julen Iriondo**

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**

**Amets taberna**



Taberna eta kafetegia  
Iparragirre 4. 943 79 01 29

**Dorleta taberna**

*Bezereen zerbitzura*

Loramendi, 8  
ARETXABALETA  
Tel.943 79 94 15



**Taberna Berri**



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

**URBALTZ TABERNA**



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABALETA

**Aretz taberna**



ORDUTEGIA:  
Astelehenetik ostiralera  
9:00etatik zabalik  
Astebukaeretan  
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

**HIRUSTA JATETXEA**  
Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

**JOSU taberna harategia**

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.. 943 77 03 08



**OTZETA taberna jatetxea**



Aranburuzabala 7  
ESKORIATZA. 943 71 51 90

**ESKORIATZA**

**Bazkariak eta afariak**



Mendiola auzoa  
ESKORATZA  
943 71 43 45  
Astelehenetan  
itxita

Tfno 714345

MENDIOLA

ERRETEGIA

**LAGUNAK**


DASTALEKU

TEL. 943714063

*Gustora egoteko!*

Intxaurtueta 8. ESKORIATZA

**GOYARAN ERRETEGIA**



Eguneko menua

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57

**Mirrentxu**



Hidalga 10  
Eskoriatza. 943 71 41 67

**COMPOSTELA Taberna**

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12  
ESKORIATZA  
943 71 48 70



*Matikua jatetxea*

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68